

## ESKOLAN IKASIA BIZITZAN NOLA ITSATSI

*Bilbo, 1994.02.26*

*Joxe Mari Berasategi Zurutuza*

### ESKOLAN IKASIA

Hasiera-hasieratik egin behar da bereizketa: euskara etxean ikasita eskolaratzen diren haurrak eta euskara ikasten eskolan hasten direnak. Irakasteredu elebidun desberdinetan ikasteak oinarritzko bereizketa horren sinplekeriari ñabardura ugari eranstea ekar lezakeen arren, gaia planteatzeko oinarri aski sendoa delakoan nago. Multzo batari eta besteari ezin zaizkio hizkuntz helburu berberak ezarri, eta hezkuntzako legediak ere ez dizkio ezartzen.

### Hizkuntz helburuak

Hizkuntz helburu orokorrak Jardunaldion gaira makurtarazten saiatuz, eta oso-oso labur adierazita, honako hau atera zait niri:

- Etxetik euskaldun eskolaratzen denarentzat, *euskalkian / azpieuskalkian / etxeko euskalkian duen adierazkortasunari kalterik egin gabe, hizkuntza standardeko gaitasun egokia lortu, ahoz zein idatziz, erdarako gaitasunekin batera, baina bere euskara horien murrontza itsuan jarri gabe.*
- Etxetik erdaldun eskolaratzen denarentzat, *standardeko gaitasun txukuna lortu, ahoz zen idatziz, erdarako gaitasun jasoeekin batera, euskara adierazkorren ulermenean lehen pausoak emanaz.*

Esaldi laburrak dira, baina badute zer eztabaidatua eta zer argitua ugari, nire irudiko. Oraingo legediaren idazleek sakon aztertuko zuten, seguru asko. Nik lan egiten dudan giroan sarri ateratzen da gaia. Ziur naiz irakasleen artean ere maiz aipatzen direla gauzok. Baina ez al zai-zue iruditzen azken hamar-hamabi urteotan, egitekoak egiteko egonik,

hausnarketa formal eta serio bat egiteko ez parada ez beta handirik ez dugula izan? Giroak hartara ekarri gaitu, ordea, azkenean. *Kantitateari* soilik begiratu gabe, kalitateari ere beha hasteko orena iritsi zaigula dio batek; huts-hutsik zenbatekoari erreparatu barik, nolakoari ere kasu ematen aitzinatu beharra dakus besteak. *Begiratu, beha hasi, kasu eman...* ez legoke bat ere gaizki, *zeri* asmatuko bagenu, *zeri* horren albo eta goi-behe mugak ezartzeko bidean jar bagintez. Nire hitz parrastada honek ez du horretan gehiegi lagunduko baina, hitza eman didatenez eta hitza eman dudanez, borondate oneko betelana izan dadila badarik ere.

*Adierazkortasuna, standardeko gaitasun egokia, morrontza itsua, standardeko gaitasun txukuna, euskara adierazkorraren ulermena...* hitzak, hitz andanak dira, merezi balu-edo gerora definitzen saia gintezkeenak.

## **Baliabideak**

Onerako zein txarrerako, helburuak lortzeko lagungarri bezain kalterako gertatzen zaizkigu, eragin indar handiago edo txikiagoz. Eskola-koak bertakoak aipatuko ditut bakar-bakarrik, kanpoko faktoreek duten eragin gero eta handiagoa aitortu ondoren. Aipatuko ditudanetatik lehenak du, askogatik izan ere, eragin eta garrantzirik handiena, nire ustez. Gainerakoetan ez naiz ausartzen lehentasun ordenarik ipintzen, ahozko-rako batzuk izan daitezkeen bezala, idatzizkorako beste batzuk izan baitaitezke aurretik.

## **Irakasleen euskara**

Irakasleen artean euskara zuzen eta egokia erabiltzen duen asko dago, beste inolako lanbidetan baino gehiago, ziur aski. Eskoletako paper eta inprimaki dexente eskuztatu beharra izaten dut urtearen joanean eta, egia esan behar bada, denetarik kausitzen da horien artean. Euskara zuzen, egoki eta adierazkorra darabilenarekin hasi, euskara standardeko zuzentasun muga juxtu antzean gaintitzen duenarekin segi eta ez euskara standardaren oinarrizko zuzentasun mugari ez euskararen beraren funtsezko hezurdurari antz eman dion harekin egin dezakezu topo.

Harrigarria ere ez da, alabaina, horrelakoak aurkitzea. Oso urte gutxitan antolatu behar izan da, ia ezerezetik hasita, euskal irakaslegoa. Irakasle horietako gehienak, gainera, bere garaian ikasketak gaztelaniaz eginak dira. Arrazoi usteko hau aitzaki itxuran uzten duen daturik ere badago, ordea. Txiki-txikitatik ikasketak eskolan eta baita eskola ondoren ere euskaraz eginiko irakasle bat baino gehiago gaztelaniaz ikasitako

haien mailatik apenas oso gora eta, kasu askotan, beherago ere ez ote dagoen susmoa baino zerbait gehiago izaten da, zenbait paper ikusita.

Badago, nire ustez, arrazoi gordinagorik. Norberak egiten ditu bere hautuak eta inguruak laguntzen dio den hura izaten. Gaur-gaurkoz, irakasle askok eskolako hizkuntza du euskara; are gehiago, askok ikasgelako hizkuntza duela esaten ere ausartuko nintzateke. Ez sentimeneko, ez gozameneko, ez pasadizu kontaketarako, ez algararako... ez du *bizi-hizkuntza*. Horren eragina nabarmena da irakaslearen eskolako eta ikasgelako euskararen. Hurbilago dabil gaztetxoek hizkuntz eredutik helduen hizkera osotik baino. Gizarte honetan bizi denez, ezin bada irakaslea, irakasle denagatik, salbuespen izan.

Eta honaino iritsita esan nahi nizueke irakasle gisa lehenengo, Euskara Zerbitzuan lanean gero eta guraso elkarte bateko jardunean oraintsu izan dudan eskarmentu apurra oinarri, irakasleen euskara egokia den ala ez aipatze hutsarekin harrotzen direla hautsak bazterretan. Ez da oraingo kontua. Hauts horrek eragindako lehen arkuxuna 1980 inguruan egin nuen nik, guraso batek eskolaurreko andereñoen gutunetako euskara zela eta *konponbideak* jarri nahi izan zituenean. Ez da oraindik hiru urte zuzendari bati etxerako idazkietan erabiltzen zuen euskararen eskasa mahaigaineratu nahi izan geniola (ala *geniona* jarri behar nuen?) eta ez zigun ulertu (nahi izan). Esan nahi baita gai hori tabu bihurtua dela aspaldian. Aurtengoan izango al da egokierarik tabu hori gainditzen has-teko!

Irakasleek dute horretan hitza. Ez zait iruditzen gaia lasaitasun batekin jorratu gabe ezer asko aurreratu edo hobetu daitekeenik.

Nik neuk batez ere standardean idatzitako testuak eta grabazioak eskuztatu izan ditut, eta hiru multzotan bilduko nituzke, abiapuntu gisa:

- Standard egokia.
- Standard murrizt desegokia, hala-holako gramatika zuzentasunezkoa.
- Standard *euskañola*.

I. Eraskinean ikus daitezke, nahi izanez gero, hiru molde horien erakuskari batzuk.

## Ikaskideen euskara

Duena baino garrantzi txikiagoa ematen zaiolakoan nago; eta ez inportantziarik ikusten ez zaiolako, eragiten zaila den esparrutzat jo ohi delako baizik.

Zer nolako euskara egiten dute ikaskideek? Hara zer galdera? Zein egingo dute bada, ikasleak eta ikaskideak ez al dute bada multzo bera osatzen? Bai eta ez. Multzo gisa begiratuta bai. Baina ikasleak banan-banan hartzen baditugu? Orduan ez beti. Oso giro euskaldun edo erdal-dunetan ikasleen artean egon badago halako homogenotasun bat, onerako zein txarrerako. Onerako direnak beude horretan. Eskasiarik izatekotan, standarda menperatzeko orduan izango dute eta horrek, zaila bada ere, badu konponbidea. Txarrerakoek, aldiz, ez dute horretan geratzeko trazarik: ogi beltza edo-ta beltzena, hau da, ogirik eza. Euskararik ez dutela egiten, alegia, edo-ta egiten dutena *euskañola* dela.

Horrelako giro homogenoak gero eta gutxiago direla uste duteneta-koa naiz. Hiri giroa ari da nagusitzen eta hor, hizkuntza bien baterako bizitza da jaun eta jabe, kasurik onenean. Baterako bizitza horretan ikasten dute ikasle askok, batzuk etxetik bertatik hasita, dakiten euskara; beste askok eskolan. Ahoz aho dabilta gai hauekin kezkatutako gurasoen artean honelako galdera-harridurak: *Hau eta hura non ikasi du gure umeak? Guk ez diogu bada horrela egiten!* Haurrei beraiei galdetuta, ez dakitela edota eskolan/ikastolan hala esaten dela erantzungo dizute. Hango hizkera molde *homologatua* horixe izaki! Ez bada nabarmendu nahi! Irakasleak ere berehala homologatzen ei dira, eskola esparrua zapaldu orduko edo-ta hango lagunena batekin topo egiten dutenean, nahiz eta esparru hartatik kanpo izan.

### **Eskola materialak**

Testuliburu, kontsulta liburu, irakurgai, kasete, bideo eta abar, eskolara kanpotik ekartzen direnak daude alde batean. Bestean, eskolan bertan sortuak, ia beti irakaslearen eskutik edo-ta horren gidaritzapean. Lehen multzoak badu, EIMA laguntza deialdiaren inguruan antolatuta eta sortzaileen/argitaratzaileen lan bulegoetan orobat, euskararen egokitasun mailari eusteko ahalegin handi bat. Bestek daki horren berri eta ez naiz sartuko. Bigarren multzo horren nondik norakoak ezagutzen ez da hain samurra. Normalean geure seme-alaben fitxa, paper eta azterketak ikusteko aukera izaten dugu, baina ez beste inorenak. Komentatu ere gehien bat trakeskeria nabarmenak komentatzen dira eta horrek batez-besteko txar baten irudia uzten du tertulietan. Ikuspegi murriztegia dugu, ordea, egoera zuzen ezagutzeko.

### **Ekoizpen aukerak eta ekoizpenen trataera**

Eskola antolatua dagoen eran, ikasleak ulermena eta gaitasun pasiboak lantzeko du aukera, beste ezertarako baino gehiago. Berak ekoiz-

teko aukera gutxi du, batez ere ahoz; baina idatziz ere ez orain dela urte batzuk beste.

Idatzizkoari dagokionean, orain urte batzuk testuliburu faltan hainbeste ugaldu zen *fitxitisak* izan du eragina. Ikasleari bost lerrotik gorako apenas ezer eskatzeraino. Baina ekoizpen aukeren eskasak adinako eragina izan duen beste faktore bat ere bada tartean, nire ustez. Penduloarenak agintzen du hemen ere: garai bateko *redaccin diaria o semanal* hartatik oso gutxi idazteraino pasa gara (nik hiru hilabeteen behineko kasua ezagutzen dut, OHOk 6. mailan). Gainera, irudipena daukat eskola ez ote den pasa hizkuntzaren balio formal eta erretoriko haiek hainbeste goraiпатetik aho zein idatzizko produkzioa ez baloratzera edo, okerrago izan daitekeena, *edonola ere berdin delako* uste-muste xeble antzeko batera, ondo, edo airoso, edo eroso, edo dotore jardutea gaizki-ikusaren behelainoan bilduta balego bezala jokatzuz. Ondo jardutearen gozamen loriak eskolan/ikasgelan/ikasle elkartean aitortzea kirol kontuetan soilik balitz bezala onargarri.

## Hezkuntza Administrazioiko hizkuntza

Esparru honetan erabiltzen den hizkuntzak ere badu eragina ikaslearen euskarari, zeharka bada ere. Administrazioak bere edozein mailatatik ikastetxeetara bidaltzen duen batez ere idatzizko produkzioak, bai egoitza nagusitik, bai lurralde ordezkarietatik, bai eskualdeko zerbitzuetatik, badu eragina eskolako administrazioan erabiltzen diren dokumentu eta paperetan. Askok inprimakiak edo ereduak dira eta hainbat jarduera horien gainean hezuramitzen da. Orobat ahozkoari dagokionean ikuskaritza eta aholkularien ikustaldi, elkarriketa, hitzaldi eta abarrez. Horiek guztiek ondorio zuzenak dituztela iruditzen zait irakasle taldeek prestatzen dituzten dokumentu garrantzitsuenetan, hasi nota agiri eta ebaluazio aktetatik eta ikasturteko plan eta memorietan buka.

Administrazioetik eskoletarako isuriak, neurri batean behintzat, betetzen ditu elebitasun itxurak. Beste edozein administrazioak adinbat bai, seguru asko. Ez da harrigarria ere, ordea, aurretik bidalketa-orri elebiduna duela, txosten edo taula-sail mamitsu eta mardulak gaztelania hutsean bidaltzea. Elebitasun *itxura* esan dut; elebitasun itsua ere maiz deitu izan diogu. Sortzeko hizkuntza gaztelania da ia beti. Euskara, azken orduko lagungarri. Kasurik onenean, itzultzaile onaren esku uzten da, presaka eta korrika egiteko aginduarekin, elebitasunaren betekizuna. Emaitza zein? Onenean gramatika zuzentasunaren maila gaintzen duen testua. Oso nekez testu adierazkor, zehatz eta irakurteraza. Irakasleak zer irakurriko du, aukera *elebidun* horretan? Eta militantismo laudagarriz

euskal bertsioa irakurtzen hasten bada, eta jatorrizkora jo gabe amaitzea lortzen badu, zer eredu ari da jasotzen?

Administratziotik igorritako idazkietako euskara eskoletan nola ikusten duten ez dago jakiterik azterlan sakona egin gabe. Azterlan horren faltan, II. Eraskinean ikus daitezke, nahi izanez gero, 1992an egindako galdekizun batetik ateratako kezka. 90 eskolak Administrazioak erabiltzen zuen euskararen desegokitasuna aipatu zuen, harekiko harremanak euskaraz izateko oztopoen artean. Hona zer zioen galdekizuna hustu ondoren Euskara Zerbitzuan egindako txostenak:

*Idazkietako euskara desegokia:* itzulpen bihurria, joskeraz eta hiztegi aztertasunetik gabea, estilo korapilotsua, ... ez dira inongo hizkuntzatan lagungarri sendoak. Bai, aldiz, behaztopa-harri larriak. Zer esanik ez erdal itzulpena, gurean bezala, gehienetan euskarazkoaren parean dagoenean eta, bai jatorrizkoa delako eta bai hartara jarriak gaudelako, askotan errazago entenditzen denean. Behar bezala zaindu gabe bidaltzen dira gainera, sarri, euskarazko testu-atalak: orrazketa on baten faltan, idazmakina-lana garaiz eta ganoraz zuzendu gabe, ...

... Besteak ezertan gutxietsi gabe ere bi dira, askogatik, kezka-gai nagusiak: hizkuntz prestakuntza ahula eta idazkietako euskararen egokitasun falta.

Jendea, Administrazioa eta ikastetxeetakoak, behar bezala trebatu gabe ikusten dute beraz, horra lehenengo kezka, euskaraz normal eta egoki jardun ahal izateko. Administrazioetik bidaltzen zaizkien dokumentu eta euskaraz ez zaie, gainera, begi-betegarri gertatzen. Hortik datozke nagusi, beraien esanean, euskaraz jardun nahi eta ezina.

Ezintasun horren bi iturriak ez dira hain bi, ondo erreparatzen badigu. Elkarren oihartzun dira izan ere, neurri ohargarri batean, bata eta beste: euskaraz jarduteko trebatu eta trebatzen ez den jendeak nekez paratuko dizu, izan ere, euskal idazki erraz, samur, zehatz eta osaturik. Entenditzen ere lan ematen duten idazki disgustagarriekin gaitz izango da, orobat, Administrazio (eta eskola) jendea euskaraz jarduteko ondo trebatzea.

Bata iturri eta bestea ondorio den, ala alderantziz, aztertzen has daiteke noski. Hemen ez gara, ordea, horretan sartuko. Probetxu handiegirik ez genuke gainera, seguruenik, hortik aterako. Hobe izango da, oraingoz, faktore biak esku esku doazela eta batean egiten den aurrerapenak berandu baino lehen bestean eragingo duela uste izatea.

Askoz hobe ote da, bestetik, eskolako irakasle-jendeak Administrazioa bidaltzen dituen idazkietako euskara? (II. Eraskineko esaldiei begiratu bat eman, behar izanez gero) Eta askoz hobe ote eskolako bertako administrazioan erabiltzen dena, euskara erabiltzen denean? Edo-ta etxeetara bidaltzen diren ohar idazkietakoa? Eta zer esan eskolan D ere-

dua irakatsi eta ikastetxeko plan eta memoriak gaztelaniaz idazten dituen irakasle taldeaz? Zer gero hori eskolan bertan itzuli eta, behar den tokirako, euskaraz edo ele bietan aurkezten duenaz? Zer, eta nahi baduzue ez sinetsi, gaztelaniaz idatzi eta gero udaletxeko itzultzaileari euskaratu dezan eskuratzen dionaz?

Norabide bietan topatzen dira euskara egokian idatzitako testuak ere. Gehiena ez ote da, ordea, erdarari lotuegia, gaztelaniaren morrontza itsuko? Eta euskara molde horrek ba al du eraginik ikasleen euskaran? Testu horiek ez dituzte eta ikasleek irakurtzen! Ez, baina irakasleek bai, eta hauen euskaran eragina badu... horregatik nioen atal honen hasieran euskara honek zeharka, baina eragin eragiten diola ikaslearen euskarari.

### **Emaitzak**

Eta zer nolako euskara egin eta idazten dute, honenbestez, gure ikasleek? Galdera zaila, inondik ere. Denbora, jakituria eta seriotasunez aztertu beharrekoa. Nork? Horra beste galdera. Erantzunen zain, nik galdekizun txiki bat prestatu dut hasieran ezarritako helburu haien neurria eta, hartarako gogorik duenak, erantzun dezala berak ezagutzen duenetik:

	<i>Emaitza onak</i>	<i>Hala-holako emaitzak</i>	<i>Emaitza eskasak</i>
<i>Etiket euskaldunak</i>			
– Standardeko gaitasun egokia ahoz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
– Standardeko gaitasun egokia idatziz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
– Etxekoaren adierazkortasunez	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
– Erdarako gaitasunekiko morrontzan	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Etiket erdaldunak</i>			
– Standardeko gaitasun txukuna ahoz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
– Standardeko gaitasun txukuna idatziz	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
– Euskara adierazkorra ulertzeko lehen pausoak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Batezbesteko optimistenean hala-holako emaitzak ateratzen zaizkit niri, lortu diren baldintzetan lortuak izateko meritu handia izan arren.

## Eskolaren mugak

Askok uste baino askoz handiagoak dira. Oso argigarri gerta daiteke, hartaz jabetzeko, Mikel Zalbidek *Eskola Hiztun Bila* (1) liburuaren sarreran eta lehen bi kapituluetan (I Hasi-masiak: eskola-giroko hizkuntz erabileran eragiten duten faktoreen lehen azalpen-saioa. II Eskolaren eragimena euskara indarberritzeko orduan) egindako hausnarketa eta, orobat, muga horien guztien gainetik, eskolaren egitekoari aitortzen dizkion betekizun garrantzizkoen dioena irakurtzea.

## Zer egin?

Emaitzen datu zehatz eta segururik ez dugun artean (zuzentasuna eta egokitasuna helburu hartuta ez baita egin, nik dakidala, eskolako euskara moldearen azterketa osaturik) ezer ez dakigulakoa edo ikusten ez dugulakoa ezin, bada, egin. Bakoitzak bere ikuspegi eta begiratokitik, baina emaitzen argazki itxurako bat badugu begibistan.

Geure gaur-gaurko argazki itxura horretan orain zortzi-hamar urte baino hobeto gaudela agertzen bada, are askoz hobeto gaudela, erraza dago: utzi denborari eta oraingo sistemari bere lanean segitzen.

Eskolan bertan edo eskolarekin gu baino harreman zuzenagoan dagoenak nolako irudi diakronikoa duen ez dakit. Nik neuk, adibide bi jartzearen, garbi ikusten dut aurrerapena EITBren edo testuliburuaren batezbestekoan. Ez dut horrelakorik sumatu eskoletatik jaso eta eskuztatu izan ditudan paperetan. Ez eta Administrazioetik eskolarakoetan ere. Egunero daukat belarrian *nago ez dakit zer eta nago badakit zer* erako euskañol euskarazal espagnolmuin hedatua.

Irakasle jendearen artean gaia planteatu eta eztabaidatzeko modua egin behar da. Ez da posible izango *guztiekin* harremanetan jartzea, ez eta ezinbesteko ere, agian. Baina ezin al liteke gai honekin oso kezkatua eta lanerako gogoz dagoen multzo kunplitu bat identifikatu eta horrekin iritzi topagunea eratu? Lehen-lehenik tabu dena gaingaitu daitekeen ikusteko. Gero, aurrerabideak proposatzen hasteko eta, demagun, bost-hamar urterako neurri zehatz eta egingarriak bideratu eta mamitzeko.

---

(1) *Eskola Hiztun Bila*. Begoña Basterretxea e.a. Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuen zabalkunde-lanak (28). Eusko Jaurlaritz. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz, 1991.



## BIZITZAN NOLA ITSATSI

Hezkuntzako euskararen zuzentasuna dugu aztergai, baina hau ez da Hezkuntza Saila, ez Euskadiko Eskola Kontseilua, ez Ikastolen Elkar-  
tea, ez Irakasle Eskola... Eskolan bertan egin daitekeenaz irakasleak adi-  
nasko izango dute horiek eta beste askok, agian, zer pentsatu, zer bide-  
ratu eta zer bultzatu.

Euskaltzaindiaren Jagon Sailaren esparruan gaude, eskolari buruz bada ere. Sail horrek berak, eztabaida hauek 75. urteurrena ospatze hu-  
tsean geratzerik ez badu nahi, hurrengo urteetarako lehen urratsak plan-  
teatu gabe behintzat ez luke geratu beharko, nire ustez. Horretan hasi  
aurreko gogoetatxo batzuk azalduko ditut, bere gordinean; nire errotak  
ez baitu gehiagorako ez jenero ez harri handi xehe-leunik.

### Ereduak

Zuzentasun kontuetan gauza asko asma liteke. *Appendix Probi* ez omen zen atzo goizean idatzi. Gizarteak eskatzen duelako justifikatzen, ondo asko egin ere, irakurri berri dugu zuzen-zaindaria. Erabakiak *Eus-  
kera* agerkarian argitaratu ohi ditu Euskaltzaindiak. Hezkuntza Saileko  
Euskara Zerbitzuak *Euskaltzaindiak batasunerako eskaini dituen (ala di-  
tuen?) Erabakiak* liburuaren bidez 1982an egin zuen horiek eskoletan za-  
baltzeko lehen saioa. 1991n argitaratu zuen 4. edizioa. *Estilo liburuak* ere  
azaldu dira: Egunkariarena, ETBko informatiboetako; HABEren biak  
(*Idazkera liburua eta Hizkuntza zuzen erabiltzeko arau eta proposamen bil-  
duma*). Azken urteotako Euskaltzaindiaren gomendio-arauek eta komu-  
nikabideetan (errezelo hutsaren emaitza ote da *hedabideetan* esan behar-  
ko nukeela zirika ari zaidan harra?) zuzentasun arauak zabaltzeko azken  
hilabeteotan jaio diren *Balinda*, Euskadi Irratiko *Euskara zainduz*, eta  
*Euskaldunon Egunkariko* Orri debozionala bezalako saioek ez dute  
justifikatzen ibili beharrik. Premia ederra badago, saio horietan jorratzen  
diren gaien lehentasunez luze hitz egin daitekeen arren. Saio guztiak be-  
harrezko jotzen ditut nik, nahiz eta idazle batzuk, itzultzaile batzuk...  
jendea oso *edulituta* ikusi. Hor ere tabua ageri da, kezka sortzaile.

Saio guzti horien eragina hemendik urte gutxitara agertuko da, agian, ahozko eta idatzizko produkzioan. Irauten dutena irauten dutela, baliteke saio horietan esan-idatziak argitalpenen batean jasotzea. Gaiak osatzen joan ahala, ezinbesteko kontsulta liburu izango dira, duda izpirik gabe.

Baina egoki hitz egiten, euskara egoki asko entzunda eta hartan asko jardunda ikasten da. Egoki idazten, euskara egoki asko irakurrita eta har-

tan asko jardunda. Euskara egoki asko entzuteko, ereduak behar. Euskara egoki asko irakurtzeko, ereduak behar. Noren mintzoa eredu? Noren luma jariora? Zubimendi eta Esnal ausartu dira izen batzuk azaltzen. Asmatu ote dute? Ez dakit. Ausartu behintzat egin dira eta nik, horretan, txapela kentzen dut horien aurrean. Gaur bertan idazten ari diren horietako batzuk behar ditugu eredu. Egunero-egunero entzuten ditugun horietako batzuk behar ditugu eredu. Irakasleen artean ere bai.

## SU ALFA

Euskara desegokian topatzen dugun edozeren aurrean hartu ohi dugun jarrera ezkor hutsari deitu diot hala. SU, bero-bero jartzen gaituen *Soineko Urratzea* delako eta ALFA, alferreko eta farisaikoa iruditzen zaidalako. Bila jarrita, zeinen euskaran ez genuke aurkituko orbainik? Euskaltzain oso edo urgazle tituluak, besterik gabe, zakargabetzen al du begia? Aurrera egiteko oztopo iruditzen zaidalako gaitzesten dut SU hori, ez hartarako motibo faltan sutzeko eskubidea inori ukatu nahi diodalako. ALFA izengoitiz hornitu dut, ahalegin eta aportazio handiak egin dituen jende asko mintzeko ez delako ia ezer behar eta, gauzak diren bezala esateko orduan, *esateko modu* aberats-deigarriak eta adjetibazio lan zorrotz-landuak tabua tabuagotzen lagundu dezakeelako, kontu eta tentu handiz jardun ezean.

## Egokiak ugaltzeko, osabetezkoak behar

Euskaltzaindiaren gomendio-arauak erabiltzailearenera ez direla iristen, eta iristeko modua egin eta ondo antolatu beharra legokeela eta... horrelako gogoetak nerabiltzan buruan, Jardunaldion lehen berria izan nuenean. Denbora gutxian euri asko egin du. Azken zaparrada, *Orri debozionezkoa*. *Ikasmendin* ere xirimiria egin zuen aurreko batean, —*ela* atzikiaren erabilera *okerrak* berdin bustiz.

Zaparrada, xirimiria... apropos nator uren kontura. Eskarmentu faltan, lerro hauei ia-ia jarri nien izen hidrologiko antzekoa: *Ubideen ustiapena eta optimizazio bideak* edo horrelako zerbait. Eskerrak aholkulariak garaiz ohararazi zidala eta horra, lehenik izena jarri, gero idatzi, izenari ere lotzen edo lotura itxurak ematen saiatu behar. Oso labur esango dut ubide kontu hori, bukatzeko.

Hizkuntza normalizatuetan hitzun guztiek ez dute hizkuntza egoki erabiltzen, are gutxiago egoera orotan. Baina egoki erabiltzen dutenen kopurua oso handia da, neurritz edo proportzioz. Zein da egoki erabiltze

horren oinarria? Osabetezko erabiltzaileen multzo kunplitu, aho-lumetatik hizkuntza-ur asko eta ona dariona, egoki-erabiltzaileen belarri-be-giak asetzeko lain. Osabetezko erabiltzaile horren eredu da elite murriz-zago eragingarria. Hitz gutxitan esanda, erregario edo ureztatze ugari eta ona, ortu-baratzetako xoko izkutueta-raino ubide beharrik gabe ere oparo heltzen dena.

Eta gurean? Egoki-erabiltzaileen kopurua eta maila, duda-mudaz-koa. Ez ordea axolagabekeria edo-ta utzikeriaren poderioz soilik, osabe-tezko erabiltzaileen multzoa murriztegia eta *hain osabetezkoa ere ez* iza-tearen ondorio gisa ere bai. Erregariotarako adina ur ba ote dugu? Isopotarako baino dexentez gehiagotarako badugula ez didazue behin-tzat ukatuko. Aspersion edo, nolabait, daukagun hori ondo banatzen egin beharko genituzke ahaleginak. Osabetezko erabiltzaileen kopurua zabal-tzea eta *osabeteagotzea* lortzen bada, berez etorriko baita loraldia eta, *hizkuntz kazkabarrekin* suerte piska bat izanez gero, baita uzta joria ere.

## I. ERASKINA

### 1.—STANDARD EGOKIA

#### 1.1

Hasteko, iaz lehen aldiz diru laguntza eskatu arren, metodo hau duela sei urte erabiltzen hasi ginela esan dezakegu. Hortaz, bidali genuen proiektuan agertzen zen helburu orokorra ikasleek urtez urte betetzen dutela esan daiteke. Baieztapen hau egia dela gure auzotik pasa daitekeen edonork egiazta dezake: orain dela sei edo zazpi urte euskara ez zen neska-mutilen artean entzuten; gaur, berriz, sarritan entzun dezakegu nola neska-mutilek euren jokoak, erosketak eta harremanak euskaraz egiten dituzten.

#### 1.2

- Ama: Ni alaba laguntzera etorri naiz. Alabaren managerra naiz. Nire alaba kuttun honek ahots zoragarria du; Pavarotti, Placido Sábado, ... denak, den-denak, harriturik utzi izan ditu. Ai!, hain lotsatia ez balitz... (*pentsatzen bezala*). Mesede bezala eskatu ziguten hona etortzea; arren eta arren aritu zitzaizkigun eta... bueno, ezetz esatea ere...
- S.2: Aaaaaa! Interesgarria, bai. (*Lagunari begiratu eta...*). Modestita Faroletxea izango den hau. (*Esaten dio behatz lodiaz ama seinalatuz eta belarri aldera zuzenduaz*).

#### 1.3

- Ainara: (*Txibistoren alabatxoa. Agertuz.*) Egun on, aita!
- Txibisto: Egun on! Baina, zer egiten duzu dagoeneko jaikita?
- Aina: Ez daukat logurerik, eta gainera...
- Txibisto: Zoaz ohera, zazpiak besterik ez dira oraindik eta!
- Ainara: Olerkia ikasteko esan dit maisuak eta...
- Txibisto: Eta zergatik ez zenuen ikasi atzo?
- Ainara: Ikasi nuen, baina, zuk entzutea nahi dut; ea ondo esaten du-dan.
- Txibisto: Ea, ba: esan bizkor, berandutzen ari zait eta.

#### 1.4

Kurtsoa aurrera joan ahala argi ikusi dugu talde askotan haurrek ez dituztela oinarrizko hainbat egitura ondo erabiltzen eta arlo honetan

zerbait egin beharra dagoela. Irakasleek ere azaldu dizkigute beren kez-  
kak (Haurrek euskaraz egiten dute, baina ez dira hobeto egiten saia-  
tzen). Hau konpontzeko hizkuntza joko batzuk erabili ditugu eta ahozko  
zuzenketa egiten ere saiatu gara, baina honetarako ekintza edo joko ego-  
kiagoen beharra sentitzen dugu eta horiek prestatzeko asmotan gaude.

### 1.5

Aipatzekoa da, halaber, beraien inplikazioaren arabera iritzi hau al-  
datu egiten dela; izan ere, egonaldi osoan jo eta ke ibili ondoren egunak  
konturatu gabe joan zaizkiela esaten dutenak daude irakasleen artean,  
horrek dakarren nekea aipatzen duten arren.

### 1.6

Ikasturtea amaitu aurretik aukeratzen dira hurrengo ikasturtean eto-  
rriko diren taldeak, guztira hogeita hamalau. Talde horietako irakaslee-  
kin bilera bat egiten da irailean, barnetegiaren helburuak, metodologia,  
programaketa, burutzen diren ekintza motak, orain arte lortutako emai-  
tzak eta bertaratu baino lehen bete beharreko prozedura azaltzeko.

### 1.7

Bere ohizko ikaskideez osaturiko taldearekin etortzen da, irakasle  
eta guzti, bi aste liburuetatik eta eguneroko bizitzatik urrun jarduteko  
asmotan. Euskaraz egitera edota egiten saiatzera datorrela eta horretara-  
ko jolas eta ekintza atseginetan murgildurik egoteko aukera izango due-  
la, ez daki besterik. Hasierako jarrera, beraz, ehunetik laurogeita hama-  
bostean behintzat, guztiz aldekoa da. Egunak aurrera egin ahala iristen  
dira senideen falta sumatzeak, animo gorabeherak e.a.

## 2.—STANDARD MURRITZ DESEGOKIA, HALA-HOLAKO GRAMATIKA ZUZENTASUNEZKOA

### 2.1

Joko hauen zuzentzailea, hasiera batetan, irakasleak izan ziren, bai-  
na gerora poliki-poliki, beste ziklo edo maila batzuetako ikasleak egin zu-  
ten jarraipena. Erdi eta Goi Zikloko ikasleak hain zuzen.

Behin jokuak ikasi ondoren, urte osorako egutegi berezi bat antola-  
tu zuten ikasleak, era honetan asterako eta zenbait momentutan hama-  
bostaldirako jokoak markatuz eta talde bakoitzaren arduradunak izenda-  
tuz.

Beste ekintza bat zera izan zen, kaletik iristen ziren joko erdaldu-nak euskaratu eta gure joko zerrendari erantsi. Nahiz eta taldearen di-namika ikasleen gain egon beraiek protagonista nagusiak izatea bultzatu, irakasle arduradun bat zuen talde bakoitzak.

## 2.2

Aurreko ikasturtean planteatutako proiektuak, euskara, gure ikas-leen eguneroko hizkuntz batean bihurtzea eta halaber euskeraren kalita-tea hobetzea zuen xede. Ikustarazi nahi genien, gure hizkuntza, bizitza-ko edozein momenturako edo aukerarentzako baliagarria dela, zenbait unetan bere harremanetarako aukeratzen zuten hizkuntza erdara zelako.

Proiektuaren barnean aurrera eman ziren ekintzak honako hauek dira:

- Ekintz kirol-kulturalak monitore euskaldunek zuzenduta.

## 2.3

Eraitza oso baikorra izan da. Ikasleek, hasieratik, irakasleei eska-tzen zien musika hori jartzea. Beraz, ikasleak oso gustura egon dira eta, inkontzienteki, abestiak euskaraz zirenez, euskara entzuten egon dira eta, gainera, euskal abesti ugari ikasi dute.

Garbi dago, ikasleei (eta Goi Zikloko ikasleei gehien bat) gaur egu-neko musika entzutea gustatzen zaiela. Beraz, musika erosterakoan, kontuan izan dugu faktore hori, eta gaur egunean euskaraz abesten du-ten hainbat talderen diskak erosi ditugu: *Su Ta Gar*, *Hertzainak*, ... Era berean, gure kulturari dauden beste abeslari batzuren diskak ere erosi ditugu: *Benito Lertxundi*, *Haizea*, ...

## 2.4

Jolasorduetan eta konpetizioetarako ere baliagarri izan dadin, kirol-en euskal terminologia erabilpenaren usaia sortzen ahalegindu gara, ba-tez ere nagusiagoetan oinarrituz.

Kirolak gaztelaniaren eragin handia duela gizartean, nabari-nabaria zen ikasleagoan, eta ez da erraza izan ohituratzea euskaraz aritzera.

Hala ere, urte guztian zehar ariketa horietan irakasle baten presen-zia garrantzitsua izan da eta ikasturte bukaerarako ikasleek bakarrik anto-latu-kirol jokoetan nabaria zen euskararen errekuperapena.

## 2.5

Esparru honek izugarrizko lana eta dirua behar izan du, baina etorkizunari begira eman dezakeen joko oso garrantzizkotzat jotzen dugu. Bertako antzokian txotxongilo, itzal txinatar, antzerki klasikoa, ... egin ahal izango dugu. Jolas librerako ere bi toki eskaintzen dira (etxea, denda, medikua / eraikuntza, lurreko joko, ...). Mahai jokoetarako (xake, dama, partxis, puzzle, ...) beste toki bat. Bukatu gabe egon arren, bertan doan dekorazioak esparru horretan egoteko erak, zaintze ohiturak, jokoetan erabiltzen diren esamoleak, ritualak, eta abarrekoak jasoko ditu. Esparru hau burutzerik izateko, ikasleei dagokien partea aipatzekoa da, etxeko jolas zahar edo erabiltzen ez dituztenak ekarriz, bertako zenbait lanetan parte hartuz jangelako arduradunaren agindupean, eta burutu gabe dauden zenbait istoriotan (apaintze lanak batipat).

## 2.6

Zenbait sondeo egin eta gero jakin izan dugu, euskararen agerpen hau onesten dela orokorrean hartzaileen artean; hala ere kasu gehiengotan lehenago gaztelaniazko testua irakurri ohi da, gero euskarakoari begirada bat botatzeko, eta oso gutxitan, bertan behera uzten da euskarazko irakurketa.

Irakasleen iritsiz, nahiz eta komunikazio papera ez bete kasu askotan, beharrezkoa da euskarazko agerpen hau B ereduko ikastetxe baten aritzen garela kontuan hartzen badugu.

## 2.7

Gaur eguerdiko 12-etan, Emili Riverari, bahitzaileen hitzetan, “diru asko duenez”, ohostu egin diote diru guztia eta baita bahitu. Bere emazteari atake bat eman dio eta koman dago oso txarto.

(*Abotsa altxatuz*) Felipe Gonzalez-ek gero eta gezur gehiago esaten duenez, sudurra ere gehiago hasi zaio. Gobernua hestutu egin da.

Eta orain munduko albisteak. Gorbaxoveri usoak kaka egin dio buru gainean eta bere emaztea, gelditu zaion mantxarekin hestututa. Sendagilearengana eraman du.

## 2.8

- Batek: Behin amak sendagilearengana eraman ninduen eta ikusi, ikusi zer gertatu zitzaidan!!
- Ama: Egunon, sendagile jauna
- Sendagilea: Egunon, andrea, zer moduz zaude?

- Ama: Ni ondo nago baina neskatxa honek ...
- Sendagilea: Zer gertatzen zaizu?
- Umea: Tripako mina dudala
- Ama: Hori, hori, bai eta gainera ez du ezer jaten
- Sendagilea: Beno, ia, ireki ezazu ahoa
- Umea: Aizu, ez dut iztarriko mina, tripako mina baizik
- Sendagilea: Esan dizut ahoa irekitzeko  
(*Neskatxak koska egiten dio sendagileari*)
- Sendagilea: Ai, ai, koska egin dit.  
(*Eskena hau bukatzeko abesti bat egingo dute.*)

## 2.9

- Praxku: (*Balantza bat eginez*) Atso zahar guztiak, kotonreatu besterik ez duzue egiten. Gure soluzioa iturria da
- 1 Hautagaia: Nor dator kantari kaletik barrena?  
(*Mutiko bat agertzen da balantzaka eta kantari*)
- Jose Mieltxo: Ixil ixilik dago ... HIP...  
Kaia barrenean ... IEPA...
- Agustina: Nire bizilagunaren semea Jose Mieltxo, tronpa tronpa eginda.  
(*Mutikoari sorbaldatik heltzen dio eta astinduz*)  
Zer egin dek?
- 1 Hautagaia: Utziko al duzu umea pakea?  
(*Haurrak abesten jarraitzen du*)
- Praxku: Ikusten nola humorea eta sasoi ona etortzen den pixkat trinkatuaz?

## 2.10

Aurretik zerbait aipatuta geratu da, baina bai esan beharra dagoela garrantzia ematen zaiola euskararen entonazioari eta berezitasun guztiei, bai hikaz egiteari bai euskalkien hiztegi eta bitxikeriei, hauek gorai patuz, hau da, euskararen aberastasunari. Umeak konturatzen dira euskara ez dela bakarrik batuera, baizik eta hori baino hizkuntza zabalagoa dela, hizkuntza bizia baita. Noski guzti honek monitoreon prestakuntza on bat suposatzen du eta hau ez dugu ahaztu behar eta landu beharreko puntu bat litzateke.

## 2.11

Euskararen girtze eta normalkuntzarako Barnetegiko jolas eta ekintza antolaketak giro eta egoera onak eskaintzen ditu. Antolaketa ondo diseinaturik, joko eta zenbait ideia interesgarriekin. Ba dira batzuk



ikasgelan gero aplikatu daitezkeenak, abestiak, kale eta gela jokoak batez ere. Beste zenbaitek, material edo denbora baldintza bereziak eskatzen dituztenak zailagoak lirateke.

## 2.12

Gaur egun barnetegien perspektiba, hareago begira jarrita dago, egonaldiaren erosotasunerako zer sortuko, kenduko edo aldatuko. Bere kezka ez dira gainera, egonaldira mugatzen, baizik egonaldiak ikasle bakoitzaren etorkizuneko hizkuntza prozesuan eduki dezaken eraginaren daude.

## 2.13

Mundu erreala gero eta indar gehiago hartzen du; fantasiak, ipuinek eta telebistak bere super-gizonekin eta abarrekin tokia hartzen hasi behar dute. Erreflexionatzen hasten dira eta baita arazoak planteatzen ere. Hamar urteko beldurrak gorde behar ditu eta, hauek kanporatzen ez badira, borrokarako joera izango du. Horrela, jokoetan konpetibitatea, besteren gaintik jartzeko gogoak eta inbidiak biolentziaz betetzen dira, baina beti haur bakoitzak bere neurrian.

## 2.14

Zenbakitzailea izendatzailea baino txikiagoa dituzten zatikiei zatiki jatorrak deitzen zaizkie.

Zenbakitzailea izendatzailea baino handiago edo berdina dituzten zatikiei sasizatikiak deitzen zaie.

## 2.15

Guraso agurgarriak:

Bihartik aurrera, hilak 28, 6gn. autobusako ibilaldia honako hau izango da:

### 3.—STANDARD *EUSKAÑOLA*

## 3.1

Arratsaldean, ohitura den bezala, auzoko kaleetan zehar kalejira egin genuen.

Balorapena ona izan arren, badirudi ibilbidea oso luzea izan zela, giroa hola apurtzen da eta gainera musikaz ere eskaz ibili ginen. Bueltan, jolastokian *Faltan bota zen ekintza gehiago giroa mantentzeko.*

Bestetik ere, eskenatoki arriskutsua izan genuen eta megafonia kaskarra. *Hobetzeko baldintzak bezala*, megafonia, eskenatokia eta biodeokamara *Apuntatzen dira.*

### 3.2

Eta Hasiera Ziklo eta Erdi Ziklokoentzat jolas bideratuak antolatu ditugu. Horretarako nola BUP-eko ikasleak hala Goi Ziklokoak sensibilizatu eta motibatu ditugu. Euskaraz Bizi proiektuan eurek duten egin-beharrez. *Euren burua arduradun bezala jotzeak eragin ditu ekintza honen gidari izatea.* Honela haur txikiagoen jolas denboran, aurrez prestatutako joku, jolas eta kirol *Ezberdinetan, jolasten zuten Euskaraz egin behar zutenaren agindupean.*

### 3.3

- Elbira: (*Harrituta*) Baina, ez al zaituztete gaizki tratatzen ...?  
(*Pin eta Pon, elkarri begira, buruarekin baietz esaten dute*)
- Ama: (*konturatu da baina disimulatu nahian...*) Beno, beno. *Egia esan, serbitzioa nahiko kaskarra da.* Eta ez Pepi eta Paki nere bizilagunek zioten bezala. Beno postrea, dexentea da: “hui-tres d’Arcachon avec du citrôn”... (*inork ere ez du ulertu*) Ostrak limoiarekin!!

### 3.4

- Bigarren maitagarria: Zer bait egin behar dugu. Oraindik beharrezkoa ezer egitea.(sic) Haiek uxatuz bere laguna egin zaitezke.
- Txorimaloa: Baina, nola?
- Lehenengo maitagarria: *Zuk bete zure misioarekin.*
- Bigarren maitagarria: Laster arte.

### 3.5

Gorabehera hauen arrazoiak aztertzerakoan, *Ekintzen erakargarritasunean, lehen asteko deskantsu ezean eta asteburuko irteeren nekagarritasunean kokatuko ginituzke.*

### 3.6

Monitoreen lana aztertzen hasterakoan, gidari eta partaideren artean aukeratzekotan, uste dugu orokorrean monitoreak gidari garelara, ekintzen

prestaketan, antolaketan ta martxan jartzeko unean lan hori ezinbestekoa dalako. Gidaritza lan honek, zenbait kasutan *Epaile izatearena lotuta darama. Baita ekintza gehienetan partaide gara ta hemen berezitasun ezberdinak* egingo genituzke:

### 3.7

Zenbait kasutan bakoitzak bere ebaluaketa egiteaz ez da nahikoa izaten, eta *Mintzamenaren erabilpena ez da positibitatearen araberan suertatzen*, eta orduan, jarraipena zehatzagoa edota beste era batetakoa izan behar du.

Barnetegiko programaketa *Hobe* eramateko, ...

... *Bestaldetik*, taldetxokideek bere arduraduna nolakoa izan den ardurak *Betetzerakoan azaltzen dute ere*.

### 3.8

Sustantzia bakoitza bere izen bereziarekin ezagutzen dugu (ura, egurra, airea, e.a.) eta bereizten ikasi dugu beraien propietate ezberdinak (solidoña, isurki edota gasa *Izanagaitik edo koloreagaitik*) ezagutzen.

## II. ERASKINA

HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOAREN EUSKARA DESEGOKIA  
(Hezkuntza Administrazioarekin euskaraz jarduteko oztopo gisa 90 ikas-  
tetxek galdekizun batean aipaturikoak)

– Idatziak erdara hutsez edota euskarazko idatzia “gehigarri” gisa-  
koa bidaltzen digute. (9)

– Nahiz eta egun jasotzen ditugun idatziak hobeto idatziak izan, sar-  
ritan guttienezko kalitaterik gabekoak izan ohi dira. (11)

– Batzuetan idazkietako euskara maila nahiko altua izaten dela. (20)

– Eskutitzetan erabiltzen dozuen euskera oso ulergaitza da. (35)

– Iskribu gehienak itzulpenak direnez, itzultzaileak garrantzia han-  
dia du: itzulpenak ulerkorrak, argiak izan beharko lirateke, eta ez erda-  
raren itzulpen soila. (39)

– Administrazioak erabiltzen duen idazkietako euskara maila “de-  
segokia”, ulermen mailan nahasketak eraginez. (42)

– Batzutan idazkietako euskara maila ez da batere argia eta erdarara  
jo behar dugu. (48)

– Euskera maila. (50)

– Idazkietako euskera maila korapilatsua izaten da. (52)

– Idazkietako euskara-maila, sarritan itzulpenak bait dira eta hori  
ostopo bai da ulermenerako euskeraren jatortasuna joskeran edo hizte-  
gian hausten duelako. (57)

– Administrazioak erabiltzen duten hizkuntza sarritan lar teknikoa  
eta uler ezina da. (59)

– Idazkietako euskara oso traketsa iruditzen zait. (63)

– Jasotako izkribuak, lehendabizi gaztelaniaz idatziak izan direla eta  
ondoren literalki itzuliak eta askotan honek, izkribua ulertu ezina egiten  
du, eta erdaraz dagoena irakurtzera bultzatzen gaitu. Uste dugu iskribua  
euskaraz pentsatua eta idatzia egongo balitz ez genukela erdarara joko  
behar irakurtzeko orduan. (67)

– Zuen euskara hobeto ulertzeko, bai euskaraz bai erdaraz irakurri  
behar izaten dugu. (69)

– Idazkietako euskera-maila. (71)

– Etortzen diren agiriak gehienak euskeraz eta erdaraz egoten dira baina euskerazko itzulpena teknikoegia ta zaila bihurtzen da. (73)

– Euskera erabilgarriagoa ta xingleagoa erabili beharko litzateke. (74)

– Argi dago gehienetan euskararen erabilpena itzulpen hutsa dela, sentido gabekoa (Administrazio aldetik). (84)

– Idazki askotan euskera oso gorapilatsua da, ulertezinezko esaldiekin eta elebidunez datozen idazkiak erdaraz irakurtzen dugu. (91)

– Idazkietako euskara maila eskasa (askotan itzulpen traketsak dira). (93)

– Idazki tekniko edota legediari buruzkoei dagokienez, oso euskara korapilatsua eta iluna erabiltzen da. Askotan ez dator gauza bera euskeraz. (94)

– Idazkietako euskara teknifikatuegia non ulergaitzak egiten dituen idazkiak. (101)

– Idazkiak itzulpenak direnean, normalean gehienetan gertatzen dena. (102)

– Idatzizko agirietan jatorrizko testoa gazteleraz egina dagoela antzematen da euskera itzulpenetan. (111)

– Idazkietako euskara-maila. (112)

– Idazkietan oso hizkuntz teknikoa da. (118)

– Idazki batzuk itzulpen hutsak dirudite. (119)

– Idazkietako euskera maila teknikoegia iruditzen zaigu. Itzulpen zuzenak dira eta ez dugu adierazi nahi dena ongi ulertzen. (124)

– Zenbait kasutan, idatzpaperetan euskerako testoa erderazkoaren itzulpen hutsa izanik, zenbat zatitan ulertzea ere zaila gertatzen da. (133)

– Zenbait zirkularretan eta idazki ofizialetan euskera ulertezina azaltzen da. (138)

– Euskeraz egindako itzulpenak edo, askotan ulertezinak izaten dira, beraz erdaraz irakurtzea behar-beharrezkoa egiten zaigu. (139)

– Zenbait idazkietako euskara maila ulergaitza da. (141)

– Idazkietako euskara maila zaila gertatzen da sarritan.

a) Itzulitakoa izateak, berez dakarren zailtasunagatik.

b) Hizkuntza teknikoaren menderatzen ez dugulako. (144)

– Inoiz, batez ere, lanpetuta gaudenean erderazko idazkira jo izan dugu Administrazioetik eskutitzen bat jaso izan dugunean. Dena den eragozpen hau erraz gainditu daiteke esaldi korapilotsuetatik ihes eginik hizkuntza errazagoa erabiliz gero. (149)

– Idatziz, askotan erdal testuaren euskeratze lana izan dela gehiegi nabari da. Ondorioz askotan ulergaitza izaten da. Erderaz pentsatuak daude. (155)

– Idazkietan oso euskera “formalista” edo gogorra erabiltzea (batez ere, lege-testuetan eta EHAA-n). (158)

– Idatzizko harremanak: euskera maila egokia izanik ere, itzulpenaren zailtasunarekin topo egiten dugu maiz. (164)

– Idazkietako euskara maila: Itzulpen gogorregiak. (Euskarazko originalak beharko lirateke). (166)

– Idazki ofizialetan eta zenbait zirkularretan euskara ulertezina azaltzen dela. (168)

– Idazkietako euskara-maila, batzutan oso tekniko edo artifiziala egiten zaidalako. (172)

– Idazkietako euskera lar tekniko. (178)

– Ikastetxe bakoitzak pertsona tekniko bat izatea (administrazioko paper guztiak egiteko). (179)

– Idazkietan erabiltzen den euskara batzuetan ulergaitza izaten da, teknikoegia edota erdaratik egindako itzulpen hutsa delako. (181)

– Deleagaritzatik bidaltzen diguten informazioa, batzutan ez dago euskara maila egokian. (184)

– Euskera mota hau askotan itzulpena (erderatik) da eta euskeraz ez da ondo ulertzen. (185)

– Idatziz erabiltzen den euskera “traketzatza”. (189)

– Euskera arrunta –komunikaziorako erabiltzen dena– ez ulertzea. Jendeak ikasitako egituretara, bakarrik, moldatzea. (190)

– Batzuetan itzulpen literalak direla dirudi. (191)

– Hiztegia nahiko ulertezina da. (192)

– Idatziz bialdutako informazio batzuk ez dira lar errezak ulertzeko, hizkuntza korapilotsua. (193)

- Idazkietako euskara-maila. (199)
- Idazkietako euskara-maila. Gehienetan erdararen itzulpen hutsa izaten dira. Hortaz, maila oso kazkarra izaten da eta, askotan ulergaitza. (211)
- Euskara maila zenbait agirietan. (215)
- Bestalde, guretzat ere zenbait idazkitan erabiltzen den euskara nahiko traketza egiten zaigu ulertzeko. Batez ere, Legediari buruzko prozedurak, arlo ekonomikokoak, etabarretako idazkiak. (219)
- Erderatik euskerara itzulpena hutsak direnez idatziak zailtasunak izaten dituzte ulertzeko. (221)
- Idatzizkoan erabiltzen den hizkuntza oso teknikoa eta zail xamarra gertatzen da. (222)
- Bereziki zailtasunak ikusten ditugu Boletineta eta bete behar diren eta ikastetxeko datuak bidaltzeko inkestak. (224)
- Erabiltzen den euskera: Normalki, gai teknikoak (legeak, arauak. etab.) itzuliak egoten dira, ez euskeraz idatziak, eta oso ulergaitzak suertatzen dira. Hitz borobilak erabili, hitzez hitzeko itzulpenak egin nahi izaten dira eta ondorioa oso txarra ateratzen da. (229)
- Idazkietako euskal-maila eragospenak daude. (238)
- EHAA euskaraz ulertezina gertatzen zaigu. (239)
- Edozein idazkietako euskara maila zail egiten zaigu. (241)
- Administrazioak erabiltzen duen euskara idatzia ulergaitza da. (245)
- Hezkuntz Administrazioak idazkiak gaztelaniaz prestatzen ditu eta itzulpenak irakurtzen ditugu. (251)
- Itzulpenak eskasak dira. Gramatikalki nahiko zuzenak, baina funtzionalki eskasak. (252)
- Administrazioetik etortzen diren idatziak, askotan, euskera traketsa izaten dute eta ulergaitzak izaten dira. (254)
- Hezkuntza Saileko ohar eta deialdiak normalki bi hizkuntzetan etortzen dira. Halere zenbaitetan euskerako itzulpena tamalgarria izaten da. (266)
- Euskarazko itzulpenak, zenbaitetan ez ditugu oso argi ikusten eta askotan erdarara jotzen dugu errazago ulertzen baitugu. (269)

– Bidaltzen zaizkigunak komunikazio itzuliak “artifizialak” dira, euskaraz landugabeak.(273)

– Administrazioaren idazkietako euskara maila ez da egokiena, euskaldun-berrientzat bereziki. (282)

– Idatziz, batez ere, idazkietako euskara maila. Askotan itzulpen hutsa da, inongo “euskaratasunik” gabekoa, euskara hila eta teknifikatuegia, komunikazioa erretzu beharrean atzeraka botatzen duen horietakoa. Eta euskaraz ezinean aritu beharrean, erdarara jotzen da. (284)

– Administrazioak erabiltzen duen hizkuntz idatzia, hitz arraroz edo oso teknikoz osatuegia dela pentsatzen dugu. Honek ulertzerakoan trabak sortzen dizkigu. (290)

– Zenbaitetan Administrazioetik datozen idatzien euskara oso ulergaitza da. (296)

– Idazkietako euskara: aldrebesa. Gizajendearen hizkuntz prestakuntza. (297)

– Administrazioiko sail batzuk bidaltzen dituzten idatziak erderazkoen itzulpen zuzenak izaten dira eta sarri askotan ez diet hartzen zentzurik. Horregatik eta denbora galtzen ez egotearren erdaraz datorrena irakurtzen dut. (302)

– Inoiz euskaraz mintzatzen hasi garenean erderara jo behar izan dugu, bai hizlaria euskaldun berria izan delako edo neuk euskera zarratua egiten dudalako. (303)

– Idazkietako hitz teknikoak. (305)

– Idazkietako euskara-maila. (307)

– Idatziz berriz, eragozpen gehiago egon daiteke:

– Zenbait idazkietako euskara mailagatik;

– Idazkian hitz tekniko asko ageri bada, idatzi hori nahiko astuna gertatzen delako. (311)

– Esamolde arazoa. (313)

– Idazkietako euskera-maila. (314)

– Idazkietan eta batez ere ofizioak diren agirietan erabiltzen den hizkuntza (batez ere hiztegia), askotan ulergaitza bihurtzen da, edo, guxtienez, anbiguo xamarra. (323)



– Sarritan Administrazioiko papelak ulertezinak izaten direla bai erderaz, zein euskeraz eta nire lana errezagoa izateko eta hutsune gutxiago egoteko hobeto ikusten dut bietara idaztea. (325)

– Administrazioetik heltzen diren idazkiak ulertzeko hizkuntz prestatuntza. (326)

– Administrazio mailako hizkuntza batzutan “aldrebesa” izaten da. (332)

– Nahiko ulergaitza da idazki batzuetako euskera. (336)

– Itzulpenak batzuetan nahiko traketsak dira. (340)

– Administrazioiko idatzietan agertzen den hizkuntza mota. (343)

– Euskaraz bidaltzen diren idatzia originalak izatea (erderatik euskerara eginiko itzulpenik ez) Euskara maila ulertteraza izan dadin orain arte erabilitako baino esaldi motzagoetaz baliaturik, euskera onaz osaturikoa izatea. (347)

– Zenbait idazkietako euskara-maila, batez ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko Legerenak etabar, zaila da. (352)

– Zenbait testu itzulpenak dira eta, batzuetan lehor samarrak. (353)